KIRURGIA HANDIA
INTERBENTZIO-ONDOKO ZAINKETAK ETA GOMENDIOAK

EGUNEKO OSPITALE MEDIKO-KIRURGIKOA

- Afaldu arin (salda, natillak, flana, jogurta...). Botaka egiten baduzu, ez hartu ezer biharamunera arte.
- Goizeko gosaritik aurrera, hartu janari solidoagoak (barazkia, arraina, tortilla), eta pixkanaka, itzuli zure ohiko dietara.
- Hartu alta ematean jasotako medikazioa, agindu zaizun bezala.
- Hartu atseden erlatiboa lehen 24 orduetan. Gero, handitu jarduera apurka-apurka.
- Hartu gorputzeko tenperatura arratsalde-gauetan, hurrengo egunetan.
- Interbentzioaren ondoren, lehen 24 orduetan lagunduta egon behar duzu.

ZAURI KIRURGIKOA

- Dutxatu egin zaitezke, edo zauriaren alderdia garbitu, medikuak kontrakorik agintzen ez badizu. Aurretik, kendu apositua. Dutxatu ondoren, ondo lehortu zauria; estal dezakezu edo aire librean utzi (nahieran).
- Baliteke zauriaren ingurua handituta sumatzea (bere gisa joango da, pixkana).
- Ez kezkatu ubel antzeko bat agertzen bazaizu zauriaren inguruan (bere gisa aldatuko zaio kolorea).
- Eguneroko bizira itzuliko zara, eboluzioaren arabera. Kontsultatu familiako medikuarekin.

BALDIN ETA:

- Min handia baduzu eta agindutako analgesikoekin arintzen ez bada.
- Gorakoa maiz izaten baduzu.
- 38º edo gehiagoko sukarra baduzu.
- Zauritik odola badarizu.

Joan zaitez *LEHEN MAILAKO ARRETARAKO medikuarengana*; edo

astelehenetik ostiralera, 20:00etatik 08:00etara, eta larunbatetan eta jaiegunetan, eguneko 24 orduetan,

LARRIALDIETAKO ZERBITZURA

Gehiago jakin nahi baduzu, ez egon dudatan, eta galdetu artatzen zaituzten profesionalei.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD